



Udalerako eta Batzar Nagusietarako  
HAUTESKUNDEAK  
2023-05-28

— EIBARKO EMAITZAK —



8



6



6



1

lehen (2019)	
PSE-EE	.....9
EAJ-PNV	.....6
EH Bildu	.....5
Podemos	.....1

UDAL ZINEGOTZIAK



Jon Iraola  
PSE-EE



Sonia Archeli  
PSE-EE



Andoni Zabala  
PSE-EE



Vanesa Hortas  
PSE-EE



Alberto Albistegi  
PSE-EE



Ana Telleria  
PSE-EE



Patxi Lejardi  
PSE-EE



Patricia Arrizabalaga  
PSE-EE



Arantza Mata  
EH Bildu



Gorka Errasti  
EH Bildu



Nerea Barruetaña  
EH Bildu



Julian Diaz  
EH Bildu



Hiart Cabrera  
EH Bildu



Leire Alberdi  
EH Bildu



Josu Mendicutte  
EAJ-PNV



Amaia Albizu  
EAJ-PNV



Elena Ibañez  
EAJ-PNV



Mertxe Garate  
EAJ-PNV



Jon Perez  
EAJ-PNV



Alberto de la Hoz  
EAJ-PNV



Isabel Fdez. Pejenaute  
Elkarrekin Podemos

20 urte baino gehiago zurekin. Profesional talde handi bat zure irribarrea zaintzen.

**bista eder**  
hortz klinika

**bista eder**  
clinica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82  
bista eder, 19 20600 eibar  
www.bistaeder.es







	PSE-EE	EH Bildu	EAJ-PNV	Podemos	PP
<b>Amaña</b>	<b>816</b> (%55)	<b>306</b> (%20)	<b>194</b> (%13)	<b>84</b> (%6)	<b>70</b> (%5)
<b>Ipurua</b>	<b>537</b> (%36)	<b>474</b> (%31)	<b>336</b> (%22)	<b>98</b> (%6)	<b>40</b> (%3)
<b>Urki</b>	<b>514</b> (%42)	<b>307</b> (%25)	<b>230</b> (%19)	<b>74</b> (%3)	<b>65</b> (%3)
<b>Udaletxea</b>	<b>859</b> (%34)	<b>718</b> (%29)	<b>667</b> (%27)	<b>106</b> (%4)	<b>75</b> (%3)
<b>Errebal</b>	<b>1.007</b> (%29)	<b>988</b> (%28)	<b>1.063</b> (%30)	<b>180</b> (%5)	<b>138</b> (%4)
<b>Urkizu</b>	<b>741</b> (%34)	<b>508</b> (%23)	<b>671</b> (%30)	<b>121</b> (%5)	<b>91</b> (%4)
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.474</b> (%36)	<b>3.301</b> (%27)	<b>3.161</b> (%25)	<b>663</b> (%5)	<b>479</b> (%4)

**ZENTSOA**  
**20.554**

**BOTO-EMAILEAK**  
**12.421**





**PARTE-HARTZEA**  
**%60'43**

**ABSTENTZIOA**  
**%39'57**



## PSE-EE garaile, baina zinegotzia galdua, EH Bilduk irabazitakoa

Lau urteko legegintzaldia amaitu ondoren, aldaketa bakarra izan da gure herriko alderdiek lortutako zinegotzi kopuruari dagokionez: PSE-EEK orain arte zuen bederatzigarrena galdu du, EH Bilduren mesedetan, azken honek bost zinegotzitik seira jauzi eginez. Hala ere, PSE-EE nagusitu da berriro ere, zortzi zinegotzirekin, eta EH Bilduk aurrea hartu dio EAJ-PNV-ri botoetan, biek sei zinegotzirekin berdindu arren. Elkarrekin Podemosek azken lau urteotako zinegotzi bakarrari eutsi dio. Boto-kopuruari dagokionez, PSE-EEK orain dela lau urte baino 1.130 gutxiago jaso ditu; hala ere, erraz nagusitu da, EH Bildu bigarrenari 1.173 botoen aldea aterata. Ezker abertzaleak 123 boto gutxiago izan ditu orain dela lau urtekoarekin parekatuta, eta EAJ-PNVk beste 541 2019an izandako botoei begira. Elkarrekin Podemosek 324 boto galdu ditu ordukoarekin parekatuta eta PP izan da bakarra 2019an ateratako boto kopurua hobetzen, 18 boto gehiagorekin. Hori bai, horrek ez dio aukerarik eman zinegotzia eskuratzeko.



la guztiek 2019an baino boto gutxiago izatearen arrazoa bi puntu garrantzitsutan nabari dezakegu. Alde batetik, orduko zentsoa 21.214 biztanlekoa bazen, oraingo honetan 660 gutxiago izan ditu, 20.554an geratzeko. Eta, horretaz aparte, ezin dugu ahaztu orduko parte-hartzea %67'72koa izan zenean, oraingo honetan %60'43an geratu dela, hau da, zazpi puntu eta erdi txikiagoa. Bestalde, auzoko botoei begira, PSE-EE auzo guztietan nagusitu da, Errebalekoan kenduta: hor, gutxigatik bada ere, EAJ-PNV izan da boto gehien jaso duena. Eta EH Bildu bigarren izan da beste hautesleketan, Urkizun kenduta. Azkenik, eta kuriositate bezala, oraingo honetan 12 emakume eta 9 gizonek osatuko dute udal korporazioa.



**EMAN CONSULTING, S.L.**

J. Etxeberria, 5 - solairuartea **EIBAR**


Tf: 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342

emansl@emansl.es

### • AHOLKULARITZA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa


### • ASEGURU PRIBATUAK



**ATZOKO  
EMAITZAK  
EIBARREN**

**ehbildu**

Eibarko tartaren zatirik handiena PSE-EEK hartu du, %36rekin. EH Bilduk, %27rekin, eta EAJ-PNV, %25ekin, jarraitzen diote. Elkarrekin Podemos (%5) eta PP (%4) zati txikiak jabe dira.



Atzo eta orain dela lau urteko Udala eta Batzarretarako hauteskundearen arteko alderaketa Eibarren jasotako boto kopuruari dagokionez. Parte-hartzea gutxitzearekin, alderdi guztiek behera egin dute, PP-k kenduta.

## AZKEN ORDUKO BALORAZIOAK



**Jon Iraola**  
PSE-EE

Balorazioa ona da, azken batean irabazi egin ditugu hauteskundeak, 4.400 botorekin. Eta, bigarren indarrarekin alderatuta, abantaila nahiko nabarmena da, 1.000 boto baino gehiagoko aldearekin. Ni oso pozik nago. Orain emaitzak patxadarekin aztertu beharko ditugu, non atera dugun gehien, non gutxien... Baina pozik egon behar gara, Eibarren berriz ere alderdi sozialistak irabazi egin duelako.



**Arantza Mata**  
EH Bildu

Eibarren lortu ditugun emaitzen inguruan egiten dugun balorazioa oso ona da, uste dut nire aurpegiak dena esaten duela. Eibarko bigarren indar politikoa gara, eta portzentaie begiratu gero, igo garen bakarrak gu gara. Gauzak horrela, oso oso pozik gaude, ospatzen. Eta, bihurtu aurrera, lanera.



**Josu Mendicute**  
EAJ-PNV

Partehartzeak behera egiteak kalte egiten digu. Joera orokorrak ikusita, Eibarren genuen indarrari eutsi diogu nahiz eta ezker abertzalearekin berdinduta geratu garen. Orain gogor lan egitea dagokigu alternatiba sendo bat eraikitzeko.

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera 20600 - EIBAR  
Tf: 943-206776 / 943-200918 www.etakitto.eus

**BABESLEA:** Eibarko Udala

**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte

**LAN-TALDEA:** Ana Aizpurua / Maider Aranberri  
Ekhi Belar / Ihintza Fernandez / Julian Fernandez  
Silbia Hernandez / Ainara Labado / Yanire Sagredo

**DISEINUA/MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi

**PUBLIZITATEA:** Belen Ulazia

**TIRADA:** 4.500 ale

**BANAKETA:** Idoia Labado

**INPRIMATEGIA:** Gertu koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92

**ISSN:** 1132-1679



**Isabel Fdez. Pejenaute**  
Elkarrekin Podemos

Pozik gaude Udalean dugun ordezkartzari eutsi diogulako. Horrek erakusten du gauzak ondo egiten ari garela. Bestetik, kezkarria da parte hartzean egon den beherakada handia. Gizarteak klase-politikoarekiko duen atxikimendu ezaren erakusle da, ez gaituzte hurbil sentitzen, eta alderdi guztiek hausnarketa sakona egin beharko genuke.



**Julen Robles**  
PP

Gure emaitzek erakusten dute gauzak ondo egin direla ditugun baliabideekin. Baliabideak falta izan zaizkigu, baina lanari eta esfortzuari esker joera aldatu dugu. Eibarrek kontinuumoa bozkatu du. Badirudi herrian inor ez dagoela PSE-EEekin konforme, baina gero aukeratu egiten dute.



**Larragest**  
INMOBILIARIA 697 25 89 66



**F. Calbeton**  
22-24

*Eibarko zure konfidantzazko inmobiliaria*



## D'HONDT LEGEAREN APLIKAZIOA

### Udaleko 21 zinegotzien postuak betetzeko

Lege hori alderdikako zerrenden bidezko ordezkari-tza proportzionaleko hauteskundeetan hautetsiak banatzeko metodoa da, batzbesteko handiena darabilena.

Boto guztiak zenbatu eta gero, zatitzaileak kalkulatu dira (zerrenda batek jasotako boto kopurua / banandu beharreko kargu kopurua).

Bi balore horien artean dauden zatitzaileekin botoen zatiketak kalkulatu eta gero, karguen asignazioa egiten da zatiketen emaitza handienetik txikienera joanda eta karguak agortzen direnean amaitzen da.

ZATIKATZAILEAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
PSE-EE	4.474	2.237	1.491	1.119	895	746	639	559	497	447
EH Bildu	3.301	1.651	1.100	825	660	550	472	413	367	330
EAJ-PNV	3.161	1.581	1.054	790	632	527	452	395	351	316
Podemos	663	332	221	166	133	111	95	83	74	66
PP	479	240	160	120	96	80	68	60	53	48

\* Negritan kargua hartzeari pauso ematen dioten kopuruak.



Erreal Plaza hautesleku bezala estreinatu zen atzokoan, lehen Coliseon eta San Andres Eskolan botoa ematen zuen jendearekin.

### EH Bildu nagusitu da Debabarreneko bozketetan

**Mutrikun, Deban, Mendaron eta Sorraluzen nagusitu dira ezker abertzalekoak. Elgoibarren eta Mallabian EAJ-PNV izan da alderdi bozkatuena eta Ermuan PSE-EE.** Zinegotzien banaketa honakoa da eskualdeko herri horietan.  
**ERMUA** (17 zinegotzi): PSE-EE (6), EH Bildu (4), EAJ-PNV (3), Podemos (2) eta PP (2).  
**ELGOIBAR** (17 zinegotzi): EAJ-PNV (8), EH Bildu (7) eta PSE-EE (2).  
**DEBA** (13 zinegotzi): EH Bildu (6), EAJ-PNV (6) eta Elkarrekin Orain Deba (1).  
**MUTRIKU** (13 zinegotzi): EH Bildu (7), EAJ-PNV (5) eta Berdeak-Equo (1).  
**SORALUZE** (11 zinegotzi): EH Bildu (6), EAJ-PNV (3) eta PSE-EE (2).  
**MENDARO** (9 zinegotzi): EH Bildu (5) eta EAJ-PNV (4).  
**MALLABIA** (9 zinegotzi): EAJ-PNV (5) eta EH Bildu (4).

### Batzar Nagusietarako aldaketa Gipuzkoan

**Eibarren bertan ere badago aldea Udalerako botoa eman edo Batzar Nagusietarako izan.** Horrela, PSE-EEk Udalerako baino 597 boto gutxiago jaso ditu azken horietan (3.877). Beste alderdi guztiek boto gehiago izan dituzte Batzarretarakoetan. Horrela, EAJ-PNV Eibarren bigarren izan da, 3.432 botorekin, Udalerako baino 271 boto gehiagorekin. Eta EH Bilduk ere Udalerako baino 98 boto gehiago jaso ditu Batzarretarako. Gauza bera Elkarrekin Podemos eta PP-ren kasuetan: lehenengoak 49 boto gehiago izan ditu (712) eta bigarrenak 70 gehiago (549). Bestalde, EAJ-PNV nagusi bada ere Bizkaian eta Araban, EH Bildu nagusitu da Gipuzkoan: bost batzarkide irabazi ditu, jeltzaleek hiru galdu dituztenean. Bizkaian eta Araban, EAJ-PNV aurretik izanda ere, alderdiak atzera egin du, EH Bilduk bietan batzarkideak irabazteko. Nafarroan, azkenik, UPN nagusitu da, PSN, EH Bildu eta Geroa Bairen aurretik. Eta lehen ez zeuden PP, Contigo Zurekin eta Vox sartu dira.

### BATZAR NAGUSIAK eta Nafarroako Parlamentua

#### Gipuzkoa

EH BILDU (22) ..... lehen 17  
 EAJ-PNV (17) ..... lehen 20  
 PSE-EE (7) ..... lehen 9  
 PP (3) ..... lehen 2  
 Podemos (2) ..... lehen 4

#### Bizkaia

EAJ-PNV (23) ..... lehen 25  
 EH BILDU (15) ..... lehen 10  
 PSE-EE (8) ..... lehen 8  
 PP (3) ..... lehen 2  
 Podemos (2) ..... lehen 6

#### Araba

EAJ-PNV (15) ..... lehen 17  
 EH BILDU (14) ..... lehen 12  
 PSE-EE (9) ..... lehen 10  
 PP (9) ..... lehen 8  
 Podemos (3) ..... lehen 4  
 Vox (1) ..... lehen 0

#### Nafarroa

UPN (15) ..... lehen 19  
 PSN (11) ..... lehen 11  
 EH Bildu (9) ..... lehen 7  
 Geroa Bai (7) ..... lehen 9  
 PP (3) ..... lehen 0  
 Contigo Zurekin (3) ..... lehen 0  
 Vox (2) ..... lehen 0



- ✓ HIPOTEKAKO GASTUAK ERREKLAMATZEN DITUGU (Notaritzako, Erregistroko, Kudeaketako eta Tasazioko fakturen zenbatekoak)
- ✓ KREDITU TXARTELEN ZORRAK (REVOLVING) ERREKLAMATZEN DITUGU
- ✓ PENTSIOAREKIKO AMATASUN KONPLEMENTUA ERREKLAMATZEN DUGU

#### EZAGUTU ITZAZU ZURE ESKUBIDEAK

DONOSTIA 943577655    BILBO 944359684    GASTEIZ 945230570    EIBAR 943207463  
 BERGARA 943760350    OÑATI 943718052    DURANGO 944360737

[www.hidalgoabogadosyasesores.com](http://www.hidalgoabogadosyasesores.com)